

2014-07-11

152 zenb.

Jokin Sorozabal

«Bertsotarako bizi izan gara»

14-19



tolosaldeko
ataria



TOLOSALDEKO hitza®



Asteasu, Berastegi, Elduain eta Oresako ondarea berreskuratzen 4-5
Amezketako argizaiolak argazkitan bildu ditu Joseba Urretabizkaiak 6-7
Txotxongiloen bideak egitasmoa 10-11 • Alegiako festak 20-23

muebles **IBARRA**
altzariak

KALITATE HOBERENA, PREZIO ONEAN




**UZTAILA ETA ABUZTUKO
ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostiralera 9:30 / 13:00

Larunbata 10:00 / 13:00

Uztailean eta abuztuan
arratsaldetan itxita!

UDAKO ESKAINTZAK!



Euskal Herria 37, behea • IBARRA • Tel: 943 53 63 24

PVC | ALUMINIO RPT

gorriti | martínez

Tel. 943 464 477 www.gorritimartinez.com

«Harriak negar egin lezake»



Estitxu Eizagirre Kerejeta
Argia-ko zuzendaria

Hala kantatu zuen Txirritak, «fracking» hitza sortu baino ia 100 urte lehenago. Araba ia osorik zulatu (eta lehertzeko) baimenak eskatuta daude, eta baita Gipuzkoaren %40 ustiatzeko ere, (agerkari hau eskuetan duzun horri, Goierriatik barrena Tolosaraino gerturatuko zaizu frackinga).

Frackinga harriari gasa ateratzeko teknika arriskutsu bat da: lurra 5.000 metro sakon bertikalki zulatzen dute eta ondoren 2-5 kilometro horizontalki. Zulo horretan presio handiz sartzen dute ura hondarraz nahastuta eta gehigarri kimikoekin. Haitza txikitzen da eta haitzetik askatutako gasa lurzorura atera. Kontua da zulatutako milaka harri horietan gehigarri kutsakorrek metatzen direla eta kutsadura handia sortzen dutela inguruko lurrean eta urean. Ura eta lurra baino bizitzeko gasa beharrezkoago dugu orain, nonbait.

Badirudi dena bale dela krisi zurlora ekarri gaituen martxari eusteko bada. Petrolio eskas denerako prest izan dezagun gasa, ez dadin abiadura handiko gizarte hau erregairik gabe geratu. Aldiz, oraindik lan eskubideetatik kendu ez duten oporrek urtero erakusten digutela ia hobeto ere bizi garela pertsiana batzuk jaitzita, gutxiago eginda, lantokietan inork telefonorik hartzen ez dizunean...

Hozkaka jartzen duen droga sintetiko hori hartutako sistema iruditzen zait frackinga munduari ipurtzulutik sartzen dion hori, kosta ahala kosta trena lurpetik pasa behar duen hori. Bere burua maite ez duen gizarte bat, bere gorputza gatzigatzen duena, inguru osoa kontsumitu arren inoiz ase ez dena. Mandoen kontrola hartu duten pilotuak buruz sendatzera bidaltzea da munduko biztanleon hil ala biziko erroka.



tolosaldeko ataria



TOLOSALDEKO hitza®



Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Zuzendaria: Ainhoa Oartzabal

Telefonoa: 943 655695

Faxa: 943 650018

Webgunea: www.ataria.info

E.P: ataria@ataria.info

Irratia: FM 107.6

Papereko editorea: Eneritz Maiz.

Interneteko editorea: Rebeka Calvo.

Irratiko editorea: Jon Miranda.

Publizitatea: 661.678818 • publi@ataria.info

Tolosaldeko

Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



galtzaundi

BERTAKO
HEDABIDEAK



berria



Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

- **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



ATARIAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik

Hamaika urtez ondarea auzolanean berreskuratzen



Burdinako taldeko kideak, Andoain, Asteasu, Berastegi, Elduain eta Orexako alkateak eta aurtengo lanetan ariko diren arkeologoak. i.r.

Asteasun, Berastegin, Elduainen eta Orexan berreskuratze lanak egingo ditu Burdinak

IÑIGO TERRADILLOS

11 urte eta 11 lan, lelo horrekin emango dituzte aurrera 2014rako aurreikusitako dituzten ekimenak Burdina taldeko kideek. Gipuzkoa eta Nafarroako sei herritan ariko dira ondarea berreskuratzen, horietatik lau Tolosaldekoak, Asteasu, Berastegi, Elduain eta Orexa, eta denetan jardunbide eta helburu bera izango dute oinarri, auzolanean aspaldiko elementuak zaharberritu, azterketak egin historia ezagutzeko, eta azkenik, herriari erakutsi herriarena dena.

Andoainen Asindegiko lixibatokian, Baltzuetako karobian eta Atxularko gotorlekuan egingo dute lan, Berastegin, Mustarreko burdi-

nolan eta Barrenolako meategietan, Elduainen Salesko karobian, Areson Ulizarko kastroan, Asteasun Urniategiko erroten eta Orexan Basabeko zentral hidroelektrikoan aritu dira aurtten.

Lan horiek guztiak egiteko aste-buruak eta jaiegunak baliatu ohi dituzte Burdinako kideek, eta, horretarako, boluntarioen lana nabarmendu dute. 80 kide inguruk osatzen dute gaur egun taldea, eta Andoainen jaio eta bertan errotoa dagoen arren, inguruko herrietako jendeak ere parte hartzen duela azaldu du Joxe Ramon Berrondo kideak. Zortzi kideekin hasi ziren duela hamaika urte, eta urtetik urtera kopurua handituz joan da, «egonkortu» arte.

Horren adierazle da egun taldeak duen babesa. Izan ere, ondarearen berreskurapenean aurtten egingo dituzten lanetan hainbat arkeologoren laguntza izango dute: Jaione Iriondo arkeologoa eta Burdinako

kidea, Zehazten enpresako Xabier Albisu, Aranzadiko Alfredo Moraza, Felix Ugarte espeleologia taldeko Txomin Ugalde eta guztien koordinatzaile lana egiten Burdinako lehendakari den Xabier Arrutirekin batera Manu Izagirre Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari izandakoa egongo da. Era berean, Patxi Aznar historialaria ere izango dute bidelagun euren lanetan.

Babesa erakundeetara ere hedatzen da, aurtten egin edo egin asmo dituzten lan horietarako sei herrietako udaletxeen laguntza izan baitute. Ana Karrere Andoaingo alkateak Burdina taldeko kideen lana azpimarratu du udal guztien izenean: «Gure herriaren historia berreskuratzea, auzolanean aritzea eta ondarea ezagutaraztea oso garrantzitsua eta beharrezkoa da, eta baita ingurumenaren zaintzan egiten dutena ere, horregatik eskerrak ematen dizkiegu urtez urte egiten duten lanarengatik».

Elduaingo Salesko karobiaren berreskuratzea

Salesko karobia zaharberritu dute, eta honekin bost dira Burdina taldeko kideek herrian berreskuratu dituztenak. Duela hiru urte hasi ziren estilo frantseseko karobi honetan garbiketa eta azterketa lanak egiten, eta aurten jarraitu dute bigarren fasearekin, hau da, egituraren sendotze lanekin, egoera txarrean edota erorita zeuden hormak konponduz. Hirugarren fasean, karobiari teiltatua edo aterpea jartzea geratuko litzaioke, eta hori datorren urtean egitea aurreikusi dute.



Goian, Salesko karobia, behean, Mustarreko burdinola.

Berastegiko Mustarreko burdinola eta Barrenolako meategiak

Leitzarain baidaran dagoen Mustarreko burdinolan aritu dira lanean Burdina taldeko kideak. Pasa den urtean lagin batzuk aztertu zituzten, eta ez zuten baliozko ezer aurkitu, beraz, aurten jarraituko dute azterketak egiten. Leitzarainen, baita ere, eta Berastegiko lurretan, Barrenolako meategietan azterketa eta prospekzioa egin asmo dute. Burdinako kideek esan dutenez, Leitzaraingo meategi garrantzitsuenetarikoak dira horiek. Felix Ugarte espeleologia taldeak gidatuko du ikerketa hori, eta Jaione Iriondo arkeologoa ere bertan izango da.

Orexan Basabeko zentral hidroelektrikoaren berreskuratzea

Orexako Basabe bailaran dago XX. mendeko zentral hidroelektrikoa. 100 urte inguru dituen eraikinak errota, zentral hidraulikoa eta zerrategia hartzen zituen. Oso utzia zegoen, eta lehendabizi guztia garbitu egin dute Burdina taldekoek, bertan zeuden erremintak, makinak eta bestelako materiala ateraz, eta guztiaren inbentarioa eginez. Udaletxeak deituta herritarrek auzolanean ere garbitu egin dute zonaldea. Bigarren fasearen zain geratu da proiektua, eta zentralaren inguruan museo bat egitea litzateke aurrera begirako ideia bat.



Goian, Basabeko zentrala, behean, Urniategiko errota.

Asteasuko Urniategiko errota zaharberriturik

Asteasuko Erreka bailaran, errepidearen ondoan kokaturiko Urniategiko errota zaharberritu dute aurten. XIX. mendekoa da, eta bi zatitan banatuta egin dituzte lanak; lehendabizi errota garbitu dute, sasiak eta belar zikinak kenduz, eta egon zitezkeen aztarnak bilatuz. Horren ostean, errota eragituratu sendotzeko lanetan aritu dira. Aurrera begira, errota ondoan kartelen bat jarri nahi dute informazioarekin eta garai bateko argazkiekin lagundurik, herritarrek ondarea eza-gutu dezaten.

Argizaiolei etekin gehiago ateratzea eskatu dute

Joseba Urretabizkaia argazkilariaren erakusketa jarri dute Fernando Amezketarra Kultur Etxean; Amezketako argiolen argazkiekin osatu du erakusketa tolosarrak



120 argizaiola kontatu dituzte Amezketako elizan, horietatik erakusketarako batzuk aukeratu dituzte. JOSEBA URRETABIZKAIJA

ASIER IMAZ AMEZKETA

Bai Joseba Urretabizkaia argazkilaria eta baita Joxemari Otermin herri-historialaria ere ados daude. Amezketako argizaiolen inguruan zerbait egin beharko litzateke. Orain arteko urratsak jarraipena izan beharko lukete, eta horregatik, uztailearen 18ra bitarte Fernando Amezketarra Kultur Etxean egongo den erakusketa aipatu behar da.

Joseba Urretabizkaia tolosarren argazkiekin osatzen dute erakus-

keta. Irudi horietan, Amezketako elizan dauden argiolak ikus daitezke. Ez daude denak, izan ere, egun, 120 kontatu dituzte. Aukeraketa egiteko garaian ez dute irizpide zehatzik erabili, polemikarik ez sortzeko.

Urretabizkaiarekin batera Joxemari Otermin aritu da argiolekin lanean. Argazkilariaren esanetan, «laguntza handia izan da, Joxemari entziklopedia txiki bat baita, eta asko erraztu dit lana».

Amezketan altxor «zoragarri» bat dutela dio Joseba Urretabizkaia:

«Egun hainbat herri euren burua saltzen ikusten dituzu, eta bien bitartean, Amezketan izugarritzko ondarea daukate. Egia dena gainera. Gaur egun ia dena gezurra da, esnea adibidez, eta aldiz, Amezketan nortasun izugarria duten argizaiolak dituzte. Euren historia, ohitura eta balore izugarriekin». Etekin gehiago atera beharko litzatekeela uste du Urretabizkaia, izan ere, «argiolak ogi bilaka daitezke, pinak,... bururatzen den edozer. Euskal Herrian beste inon ez dago horrelako altxorrik».

Erakusketa

HAINBAT DATU

Non. Amezketako Fernando Amezketarra Kultur Etxean.

Orduategia.

- Gaur, 10:00etatik 13:00etara.
- Uztailaren 14tik 18ra, 17:00etatik 20:00etara.

Argazkilaria. Joseba Urretabizkaia.

120 argizaiola. Amezketako elizan argiola kopuru hori zenbatu dute. 116 oholtxoaren formakoak, eta gainerako laurak, lau oinekoak. Erakusketan horietako batzuren argazkiak daude.

Horregatik, erakusketa gazteei zabaldu nahi die argazkilaria, euren herrian duten altxorra ikus eta zabal dezaten.

Argazkiak ateratzeko unean, zailtasun handirik ez duela izan esan du Urretabizkaia; Otermin alboan izan duelako, eta argiolak euren lekuan atera nahi zituelako. «Argizaiolak ohol zahar batzuen gainean daude, eta ohola bera, argazki bat

da. Argiolak bertatik ateratzen direla eman du. Hori azaldu nahi izan dugu argazkietan».

Argiolen inguruko elkarte

Erakusketaren inaugurazioan Joxemari Oterminek hitz egin zuen. Herri historialari amezketarrak, argiolen balorea aldarrikatu zuen, eta horren zabalpenean lan egingo lukeen elkarte baten hutsunea nabarmendu zuen, «elizatik eta udaletik at, baina biekin elkarlanean».

Argizaiolei Amezketan argiolak esaten zaie, batez ere adinekoen artean. Orain gutxira arte, baserri bakoitzak berea zuen elizan. Argiolek sendian zendutakoei argia ematea dute helburu, eta ohitura hori belaunaldiz belaunaldi transmititu da herrian, mendeetan zehar.

XX. mendearen bigarren erdira arte herri askotako elizetan ikus zitezkeen argizaiolak Euskal Herrian. Gaur egun, ordea, elementu hori bizirik mantentzen den herri bakarretakoa da Amezketan, nahiz eta azken urteetan beheranzko joera hori nabaritu den. Sua itzali baina indartu egin behar dela dioten proposamenak, behintzat, hor daude.

“ Joxemari Oterminen laguntzak asko erraztu dit egin beharreko lana”

“ Euskal Herrian ez dago beste inon horrelako altxorrik; bururatzen den edozer egin daiteke”

“ Argizaiolak dauden ohola, bere horretan, argazki bat da. Hori txertatzen saiatu gara”

JOSEBA URRETABIZKAIA
ARGAZKILARIA



Villabona-Aiztondo



Herriko festak antolatzen aritu diren festa batzordeko eragileek eta udalak aurtengorako prestatu dituzten jaiak aurkeztu dituzte. A. o.

Atzera kontaketa hasi da

AINHOA OIARTZABAL AMASA-VILLABONA

«(...) Ez da txorakeria garai hauetan era honetako jai luze eta parte-hartzaileei eustea». Villabonako jai batzordeak egitarauaren agurrean idatzi duen esaldi horrekin laburbildu daitezke 2014ko Santio Jaiak. Aurten ere, festa luzeak izango bati-tira (uztailaren 24tik uztailaren 31ra), eta aurten ere, herritarrek protagonista izango dituen ekitaldi ugari izango baitira: herri afaria, danborrada, krosak, marrazki lehiaketak, herritarren argazkien proiektzioa,... Hori dena antolatze-ak, aurten ere, hainbat herritarrei eskatu die ahalegina. Behar Zana eta Zunbeltz elkarteak, erretiratuen elkarteak, Oinkari dantza taldea,

Herritarrei jaietan parte hartzeko deia egin diete Amasa-Villabonako festa batzordeko kide diren elkarteek eta, udalak

Gazte Asanblada, Danena halterofilia taldea, Arratzain irristaketa taldea,... hainbat eta hainbat elkarten lanarekin antolatu dira jaiak. Urte hasieratik hasita, hilean behin baino gehiagotan bildu dira udalarekin batera festa txukun prestatzeko.

Jon Ander Artolak eginiko irudia esku-programan

Behin guztia antolatuta, eta jai egunak iritsi bitartean, zer ekitaldi eta noiz izango diren jakinarazteko esku-programa prestatu dute, festa hasi bitartean, herritarrek beren planak egin ditzaten.

Beatriz Medrano herritarrek diseinatu du aurtengo jai egitaraua, eta egitarauaren azala, berriz, Jon Ander Artolarena da. Bere proposamena irten zen garaile azala erabakitze lehiaketara aurkeztu ziren 15 lanen artean. Nora Urbizu kultura zinegotziak atzo Villabonako Santio jaien aurkezpenean jakitera eman zuenez, datozen egunetan banatuko dute etxe guztietan jaien esku-programa.

Jaiak antolatzeko parte hartu duten eragile guztien lana azpimarratu zuen Urbizuk, «jendeak ondo pasa dezan» beste jende askok lan asko egiten duela azpimarratuz.

Villabona-Aitzondo

Eta ekonomiari dagokionez krisi garaia izan arren oraingo hauek, modu parte hartzailean osatu dituzten jaien ereduaren alde egin zuen, eta, bide hori zabaltzeko asmoa agertu zuen.

Parte-hartzea zabaltu nahian

Hain zuzen, Joxean Cuberok Amasa-Villabonako kultura teknikariak aurreratu zuen hurrengo urteko

Santio Jaiak antolatzeko beste bide batzuk zabaltzeko nahi dituztela: «Izan ere, festa batzordean urtero eragile berberak hartzen dute parte, eta zabaltzeko nahi dugu herritar gehiagorengana».

Batik bat, jende gaztea du buruan, eta kontzertuak-eta antolatzeko orduan zein musika talde ekarri proposatzeko moduak jarri nahi dituzte euren eskura. Esate-

ra baterako, sare sozialen bidez. Esku-programan bertan ere horretarako deia egiten die herritarrei Villabonako jai batzordeak: «(...) argi dago denon partetik jarri behar dugula, jaiak antolatzeko modu kolektibo, boluntario eta parte-hartzaile hau sekula ez galtzeko».

Aurtengoz behintzat, halakoxe jaiak antolatu dituzte Villabonan.



Onddo Gazte Asanbladak antolatzen duen udako Futbito Txapelketaren finala Santio Jaien barruan jokatu da. A. OIARTZABAL

Hainbat berrikuntza ohiko ekitaldiekin batera

Urtero ekitaldiek urteroko tokia izaten jarraituko dute 2014ko Santio jaietan. Hala ere, berrikuntza dezentek izango dira aurtengo ekinaldian, eta, ongi irtenez gero, baita hurrengoetan ere:

- **Txupinazoa Xake Joku Ekartearen eskutik:** Uztailaren 24ean osteguneguz emango zaie jaiari hasiera. Arratsaldeko 18:00etan botako dute txupinazoa Xake Joku Elkarte-koek, Iraunkorrek txarangak alaituta.
- **Zea Mays eta Izeberg taldeen kontzertua:** Urteroko rock kontzertua hilaren 24ean izango da aurten, gauerdian. Zea Mays eta Izeberg musika taldeak etorriko dira.
- **Eresargi, Eresargi Txiki abesbatza & Umama taldeen emanaldia:**

Santio Egunean, gauean, Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzen emanaldia izango da Umama taldearekin batera. Juantxo Zeberio Etxetxiak zuzentzen duen jazz taldea. Musika korala eta jazzak uztartuko dituzte Amalur parkean eskainiko duten kontzertuan.

- **Haurrentzako marrazki lehiaketa:** Berrikuntza gisa, uztailaren 27an igandean goizez haurrentzat marrazki lehiaketa izango da. Oria Merkatarien Elkarteari esker antolatu da, eta Berdura plazan izango da.
- **Uztailaren 29an, atsedeen eguna:** Uztailaren 30ean kuadrillen egunari indarrarekin ekiteko, bezperan, uztailaren 29an, ez da ekitaldirik ospatuko.

• **Herritarren argazkien bilduma:** Jaien azken egunean, uztailaren 31n, jaietako hainbat ekitalditan herritarrek atera dituzten argazkien proiektzioa izango da Erreboteko plazan, 23:00etan. Aurten lehendabizikoz antolatu dute ekimen hau.

Argazkiak atera ahala bidali daitetzke, uztailaren 31 arte (14:00ak arte). Korreo elektronikoa honetara: santioakirudietan@gmail.com edota whatsapp zenbaki honetara: 608750480.

Udalak eskubidea izango du jasotako argazkiak proiektzioan zein beste era batean erabiltzeko, eta era berean, eskubidea izango du argazkiak baztertzeko, beren edukia kontutan hartuta.



Gaurtik hasi eta igandera arte, Tripitaka Teatro taldeak *El jajilé azul* obra antzetzuko du Ibarra, Alegian eta Tolosan. ATARIA

Kalea, txotxongiloentzat

Uztailean eta abuztuan txotxongilo emanaldiak izango dira eskualdeko hainbat herritan, Topic zentroak antolatu duen Txotxongiloen Bideak egitasmoaren bitartez

IMANOL GARCIA LANDA

Tolosako Topic zentroak lehenengo aldiz Txotxongiloen Bideak egitasmoa jarri du martxan aurret. Xabier Ormazabal Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariordeak azaldu duenez, «jakina den bezala azaroaren bukaeran Titirijai antolatzen dugu, eta ez du oso eguraldi ona egiten, eta saioak aretoetan egiten dira. Horregatik pentsatu genuen kanpora ateratzea saioak, eta horretarako eguraldi hobea egin dezakeen garaia aukeratzea».

Horrela, zortzi konpainia aukeratu dituzte, deialdira aurkeztu ziren berrogeietatik, eta uztailean eta abuztuan zehar Gipuzkoako hainbat herrietan egingo dituzte saioak, gehienak eskualdeko herrietan. Konpainia bakoitza egun batzuetan izango da, beti ere asteburua tartean dela. Egundorietan Topic zentroak sortzaileentzat duen egoitzan egongo dira, eta

hortik abiatuko dira dagokien lekura saioak egitera.

Emanaldiak eskualdeko zenbait herri txikitik izango direla nabarmendu du Ormazabalek: «Herri txikitik zailagoa izaten da kultur emanaldiak antolatzea, normalean herri handiagoetara joan behar dute, eta ekimen honekin txotxongilo saioak bertatik bertara ikusi ahalko dituzte».

Txotxongiloak kalera ateratzeaz gain, beste helburu batekin ere antolatu dute ekimena. «Aspaldiko usadio hori berreskuratzea da asmoa, txotxongilolariak herrietara joaten zirenekoa, eta jende guztia


plazan biltzen zenekoa, gero txapela pasatzen zutena».

Aukera «zoragarria»

Zortzi konpainia izango dira euren emanaldiak eginez; Buho Teatro aurreko astean izan zen eta eguntan Errioxako Tripitaka Teatro taldea ariko da herriz herri *El jajilé azul* obrarekin. Taldeko kideak gehiago badira ere gurera horietatik bi etorri dira, Arantza Moreno eta Fernando Contreras. Lehenengo aldian izango da Tolosaldean saioak eskaintzen dituztela. «Azken bi urteetan Unimak Topic zentroan antolatzen duen udako ikastaroan

izan gara, baina ez dugu oraindik inguruan emanaldirik egin», azaldu du Morenok. Bere emanaldi sorta gaur hasiko da, eta Ibarra goizean izango dira eta Alegian arratsaldean.

El jajilé azul obran istorio polita kontatzen dutela dio Morenok: «Basoan bizi den basurde bati buruz da. Ez zaio bere itxura gustatzen eta ez du izan nahi basurde bat. Beste zerbait izan nahi





Anita Maravillas taldeak *Cabaret Fantastic* obra eskainiko du abuztuan. ATARIA

duela amesten du, eta amets egiten duen heinean, aldatzen doa izan nahi duen horretara iritsi arte. Baina orduan konturatzen da bakarrik dagoela munduan, ez dagoelako bera bezalako beste inor». Pertsonaiak bidaia bat egiten du bere pertsonalitatea bilatuz, izen berri bat bilatuz, «baina konturatzen da horrela ez duela zoriontasunik lortu», gaineratu du Morenok, «eta itzultzen denean konturatzen da askoz ere hobea goak eta interesgarriagoak garela garen bezalakoak izanez, ez garen zerbait izaten saiatzin garenean baino». Haur txikientzat, bi urtetik hasita, zein helduentzat egokia dela dio Tripitaka Teatro taldeko kideak.

Txotxongiloen Bideak egitasmoan parte hartzea «abentura bat eta zerbait liluragarria» dela dio Morenok: «Zure obra erakutsi dezakezu, eta orokorrean, egin duzun lana gustatzen bazaio, jendea eskuazala da txapela pasatzen duzuean». Bestalde, Topic zentroan egotea «zoragarria» dela esan du: «Erreferentziakoz lekua da edozein txotxongilolarirentzat. Egitasmoaren berri izan nuenean berehala pentsatu nuen parte hartu nahi nuela. Orain ea eguraldiak hobetzen duen, emanaldiak kalean egin ahal izateko».

Egitaraua

UZTAILAK 11, OSTIRALA

10:00. Tripitaka Teatro, Ibarako plazan.

19:00. Tripitaka Teatro, Alegiako plazan.

UZTAILAK 12, LARUNBATA

20:00. Tripitaka Teatro, Tolosako Amarotz auzoan.

UZTAILAK 13, IGANDEA

12:00. Tripitaka Teatro, Tolosako Plaza Berrian.

UZTAILAK 18, OSTIRALA

10:00. Marionautas, Ibarako plazan.

18:00. Marionautas, Irurako plazan.

UZTAILAK 19, LARUNBATA

18:30. Marionautas, Tolosako Euskal Herria plazan.

UZTAILAK 20, IGANDEA

12:00. Marionautas, Tolosako Plaza Berrian.

UZTAILAK 25, OSTIRALA

19:00. With The Beatles, Ibarako plazan.

UZTAILAK 26, LARUNBATA

20:00. With The Beatles, Tolosako Zumardiaundian.

UZTAILAK 27, IGANDEA

10:00. With The Beatles, Tolosako Plaza Berrian.

ABUZTUAK 1, OSTIRALA

18:00. Peus de Porc, Altzoko plazan.

ABUZTUAK 2, LARUNBATA

20:00. Peus de Porc, Tolosako Larramendi auzoan.

ABUZTUAK 3, IGANDEA

12:00. Peus de Porc, Tolosako Plaza Berrian.

Abuztuan zehar, Anita Maravillas, *Las Giramundo* eta *Paperperformances* taldeek ikuskizunak emango dituzte Herrialde, Albiztur, Berrobi eta Tolosan.

Ioseba Rojo • **Eskiatzaile ohia**

«Eski profesionala utzi arren, ez naiz aparte izango. Horrek asko lagundu du erabakia hartzen»

Tolosarrak eskiatzaile izateari utzi dio, eta Espainiako Selektzio teknikari izango da

M. IRAOLA / A. IMAZ TOLOSA

Ioseba Rojok (Tolosa, 1988) profesional gisa eskiatzeari utzi dio, baina ez da «gehien atsegin» duen mundu horretatik at geratuko. Kirolari izate-tik Espainiako selektzio teknikari izatera pasako da gazte tolosarra. «Asko pentsatutako erabakia» izan dela aitortu du Rojok, baina «gustuko lanpostua» aurkitu duela dio.

Zergatik hartu duzu eski profesionala uztearen erabakia?

Asko pentsatutako erabakia izan da. Sotxira joan ez izanak galdera asko eragin zizkidan nire buruan konpetitzen jarraitzeko edo ez. Selektzioan teknikari gisa jarduteko lan eskaintza iritsi zen orduan. Nire munduko lanpostua da, eta horrek ere asko lagundu zidan uztea erabakitzeko orduan.

Sotxikoa kolpe gogorra izan zen...

Kolpe izugarria izan zen. Sailkatuta nengoen, baina ez nintzen izan. Denboraldiarekin aurrera jarraitzea besterik ez zitzaidan geratu. Duda asko izan nituen aurrerantzean. Esan du-dan moduan, lana iritsi eta horri heldu nion. Gainera, beka aldetik ere oso gaizki dago gure kirola.

Izan ere, ez zuk ezta anaiak ere ez duzue bekarik izan ezta?

Ez. Orain arte Gipuzkoako laguntza txiki bat guenen. Sotxira joateko



Ioseba Rojo eskiatzaile ohia, anaia Imanol alboan duela. I. G. L.

anaiak BAT Basque Team-eko beka lortu zuen. Ni, ordea, bekarik gabe geratzen nintzen, eta lanak diru-sarrerara bat izatea ahalbidetzen zidan.

Zer esan nahi du eskiatzaile profesional izanda, bekarik ez izateak?

Diru-sarrerarik ez daukazu, eta gastu guztiak zure poltsikotik ordaindu behar dituzu. Oso gustuko dugu eskia baina diru asko suposatzen du.

Oso garestia da eskia ezta?

Bai. Kanpora joatea, bereziki garestia da. Materiala bera ere bai. Asko kostatzen da, eta bekarik gabe ezin da bizi hontatik.

Eskiarene munduan jarraituko duzu baina bizimodua aldatuko zaizu.

Bai, aldatuko da, baina ez da hain dramatiko izango. Soilik beste ikuspegi batetik biziko dut. Txapelketetara joaten jarraituko dut, berraz, ez naiz hain aparte izango. Gustura nago zentzu horretan.

Zehaztu al dute zure lana?

Materialaren arduradun izango naiz. Entrenatzailearekin entrenatzeko orduak eta lan-saio motak prestatuko ditut.

Anaia ere entrenatzea tokatuko zaizu, orduan?

Bai. Gehienbat udara aldean bera-
rekin ari naiz entrenamendu saioak
prestatzen. Niretzat ona da haste-
ko, ondo ezagutzen baikara.

**Anaiarekin lotura estua duzu. Be-
rak nola bizi izan du zure erabaki
hau?**

Egia esan oso pozik jarri da selek-
zioko teknikari izango naizelako. Ur-
tetan batera atera izan gara kanpo-
an konpetitzera. Nahiz eta kirola
utzi nirekin bidaiatzen jarraitzeak
poz handia sortu zion. Azken finean
ondo ezagutzen zaituen eta kon-
fiantza duzun teknikari bat alboan
izatea ona da.

**Familia eta lagunaren babesa izan
ere izan duzu une hauetan...**

Bai. Duela bi aste omenaldi sorpre-
sa bat prestatu zidaten Tolosako
Kultur Etxean. Familiartekoak, kua-
drillakoak eta eskiko lagunak izan
ziren bertan. Ezusteko handia izan
zen niretzat eta guztiak emozionatu
ginen. Eskerrak eman nahiko nize-
kieke bertan izan ziren guztiei. Izu-
garria izan zen.

**Horrelako erabaki bat hartzen de-
nean, zure ibilbidearen inguruko
errepaso bat egiten da? Hau da,
hasierak, une onak, txarrak...**

Bai, guztia. Gehienbat omenaldian
etorri zitzaizkidan oroitzapen guz-
tiak. 11 urteko nire ibilbideko une
hainbatekin osatutako bideo bat ja-
rri zuten, eta asko emozionatu nin-
tzen.

**Erabaki hori hartu behar izatea
izan al da zure ibilbideko unerik go-
gorrena?**

Sotxikoa izan zen unerik gogorrena,
joango ez nintzela esan zidatene-
koa. Hortik aurrera jarraitzeko era-
bakia hartu egin behar nuen bai ala
bai, eta gogorra izan den arren, fa-
miliak eta neskalagunak asko la-
gundu didate.

**Oroitzapen onak ere gordeko ditu-
zu zure ibilbidetik...**

Bai, oso onak, gainera. Beti gorde-
ko dut Oslon 2011. urtean jokatu
zen Munduko txapelketa. Esperien-
tzia ahaztezina izan zen.

Irudia



Manu Chao Bonberenean

Bezperan Piraten *Edozer dugu po-
sible* jaialdian kontzertua Donos-
tian eskaini ondoren, atzo Manu
Chaok eguna Tolosara etortzeko
probestu zuen. Bonberenean

egon zen bertako lagunekin,
eta bazkal ostean, kantuan aritze-
ko denbora hartu zuten terrazan
eguneko lehen eguzki printzekin.
NEREA LIZARRALDE / ATARIA



Mahala Baserria
Leaburu • Gipuzkoa
Tel.: 943 670 724
www.mahalanaturala.com

Jokin Sorozabal • **Bertsolaria**

«Herri antzerkiaren gidoia herrian geneukanetik abiatuta osatu genuen»

Udazkenean Orexan antolatzen duten kultur hamabostaldiaren barruan herri antzerkia egin zuten. Uitziko eta Orexako 50 bat lagunek hartu zuten parte. Herriarrek ikuskizun mardula osatu zuten eta herriko elizan eskaini. Joxan Azpiroz uitziarrek eta Orexan bizi den Jokin Sorozabalek zuzendu zuten ikuskizuna

JON MIRANDA OREXA

Herri antzerkiaren gainean aritu gara Jokin Sorozabalekin. Prestaketa lana luzea eta gogorra izan dela aitortu digu baina kontentu sumatzen zaio emaitzarekin. Akuilu lana egitea egokitu zaio, jendea biltzea kostatzen baita. Baina ilusioz ikusi ditu orexarrak. Espero ez zuen jendeak ere parte hartu zuen herri antzerkian.

Orexak badu Nafarroako Uitzirekin harreman estua, aspalditik. Nondik norakoa da harreman hau?

Nikolas Ormaetxea *Orix*e idazlea hemen Orexan jaio zen. Adopzioan eman eta Uitzira joan zen bizitzera umetan. Haren mendeurrenean, 1988an, haren inguruko zerbait egitea pentsatu zuten bai jaio zen herrian, Orexan, bai hazi zen herrian, Uitzin. Orduan gazte zirenek mugitu zuten hori dena, eta geroztik, harremana mantentzen da. *Orix*e-ri esker sortutako harremana da.

Orixe-ren berri izango zenuen le-



henago, baina Orexara etorrita, zer gehiago ikasi duzu?

Paulo Izuetak eman izan du hitzaldiren bat edo beste, eta horrela jakin dugu, besteak beste, apaiz ikasketak egin zituela baina elizarekin eduki zituen gora beheren ondotik ez ziotela meza ematen utzi. Euskal literaturan pertsonaia garrantzi-

tsua da, *Euskaldunak* poema liburua idatzi zuen 1936ko gerraren ingurumarian Euskaltzaindiak eskatuta. Hain justu, euskal poema bilduma nazionala egiteko eskatu zion.

Liburu horretan oinarrituta egin zuten duela 25 urte bai Uitzin bai Orexan Orixe-ri buruzko antzerkia, ezta?

Festaburu izeneko poemari oinarritutakoa, nola menditik festara etortzen ziren ikazkinak eta abar. Antzerki horretaz gainera, ekitaldi pila bat egin zituzten. Eta urtero, mantendu egin da harremana.

Iaz, lehen harreman horretatik 25 urte betetzen zirela-eta zerbait berezia egin behar zela pentsatu zen. Taldetxo bat hasi ginen elkartzen eta handik sortu zen iazko udazkeneko herri antzerkia.

Zu arduratu zinen gidoia idazteaz. Nolakoa izan zen prozesua?

Uitziko Joxan Azpiroz eta bion artean egin genuen. Berak oso ondo ezagutzen du *Orix*e-ren obra, buruan zituen haren kanta batzuk, ida-



'Orixe'-ren eskultura Orexan. i.g.L.

tzi batzuk. Era berean, interesaturik zeuden Ingurutxo dantzarekin. Nafarroako Larraun bailarako herri guztietan dantzaten baitzen lehen. Eta bide batez, berreskuratu egin nahi zuten.

Hori dena kontutan izanda, pentsatu genuen *Orixe*-ren garaia hartu eta garai hartan berak zein gure herriak orokorrean bizi izandako gertakizun garrantzitsuenak erakustea.

1888an jaio eta 1961ean hil zen Orixe. Garai mugituak, ezbairik gabe.

Bai, gaiak baziren. Garai hartako gertakizunen zerrenda bat egin genuen, eta hurrengo pausoa izan zen pentsatzea nola egin hori dena bi herrietako jendearekin. Musikari aldetik, dantzarien aldetik,... zer baliabide genituen ikusi genuen. Antzerkian zerbait ibilitakoak ere bazi-rela ikusi genuen, bertsozale kua-drilla bat ere bai, batukada taldea ere bazegoen, txistulariak,... Bakoi-tzari zer lan jarri erabakitzea izan zen hurrengo lana, bizkarrezur bat osatzeko. Horrek eman zizkigun buruhauste dezente.

Ez genuen eskarmentu handiegirik antzerkiaren munduan, baina gauza batzuk ikusi genituen, eta kopiatu ere bai.

Antzerkia Orixe eta haren arreba gorpuzten duen bikoteak gidatzen du, eta kontakizun horri txertatu dizkiozue beste ekintzak.

Bikoteak lehen pertsona kontatzen du, narratzaile funtzioa egiten du; lotura egiten du gertaera batetik bestera. Narratzaileen kontakizuna Joxan Azpirozek egin zuen, berak oso ondo ezagutzen baitu Orixe-ren bizitza. Berak garrantzi handia eman zion arrebarekin zuen loturari. Hego Ameriketara misiolari gisa



ibili zen bere arreba lekaimea, eta eskutitz bidez asko komunikatu ziren elkarren artean. Erbestaldi baten amaieran eta bestearen hasieran non zegoen kokatzen lagundu zion.

Kantuak, bertsoak, batukada, dantzak... erakutsi dituzue.

Batukada txistulariekin batera uztartu genuen. Eta 1936ko gerraz ari garenean, batukada oso aproposa izan da bonbardaketa simulatzeko. Eszena horretan gaztetxoek azoka eguna irudikatu dute, dantzarekin.

Gernikako bonbardaketaz gainera, zer beste gertaera erakutsi duzue?

Hasiera Ingurutxo da. Sarrera indartsua izatea nahi genuen, eta hoglegi lagun inguruk hartzen dute parte hasierako eszena horretan. *Orixe*-k idatzitako kantuekin segitzen dugu; euskal kulturaren berpizkundearena dator ondoren, *Lauaxeta*, *Lizardi* eta horiekin; bertsolaritzari heltzen diogu gero, 1935-1936ean antolatu zen lehen bertsolari txapelketari.

Basarri-ren eskola berriak eta *Txirrita*-ren eskola zaharrak ere badute beren tokia antzerkian; sagardotegietatik antzokietarako salto hori

naturala izan ote zen, edota garaiko kultur eliteak, *Aitzol*-ek eta hauek gidatua izan ote zen,... hori dena ateratzen dugu.

Errepublikaren aldarrikapena, 1936ko gerra, gerra ostea,... Gerra ostean herri hauetako asko hustu egin ziren biztanlez. Orexak adibidez, lehengo mende erdialdean 200-300 biztanle izango zituen. Aldiz, 1970. urtearen inguruan justu iritsiko zen 70 herritar izatera. Industrializazioaren eraginez jende askok baserriak uzten zituen beheko herrietara joateko. Herrian gelditzen ziren biztanleentzat gogorra eta tristea izango zen hori ikustea. Hori ere tratatzen da antzerkian.

Bukaera aldera, *Orixe*-ren azken urteetan, ikastolak sortzen hasi ziren, Ez Dok Amairuren mugimendua,... zentsura ere ageri da. Hala, azken kantuan, parte-hartzaile guztiak atera eta kantatu egiten dute; nolabait, herriak lortzen du zentsura gairiditu eta kantatzea. Mezu positibo horrekin bukatzen da antzerkia.

Youtuben dagon ikusgai, ezta?

Bai. Luis Gurrutxaga irurarrak grabatu zuen herri antzerki osoa, eta gero lan handia hartu du hura muntatzeko.

Haurra zela Uitzira eraman, gero seminariora, erbestera,... Noiz bizi izan zen *Orixe* Orexan?

Dirudienez, urte gutxitan. Bisitan-eta etortzen zen, eta gerra lehertu zenean Orexan zegoen. *Euskaldunak* idazteko eskatu ziotenean ere hemen zen, eta oraindik ere gogoratzen dira adineko batzuk nondik norra ibiltzen zen paseoan, bere pentsamenduetan sartuta. Askok igual erdi erotzat hartuko zuten. Beraz, gerra aurreko urte batzuetan Orexan bizi izan zen. Gerran ihes egin behar izan zuen, eta erbesteren zegoela, Frantzian, II. Mundu Gerra lehertu zen eta preso ere egon zen bertan. Handik libratu zenean Hego Ameriketara ere ibili zen.

Azken urteetan bere iloba Joxe Mari Aranalde Gazteluko apaizarekin bizi izan zen, Añorgan.

***Aitzol*, *Lizardi* eta halako beste askorekin Euskal Pizkundearrekin ekarpen handia egin zuen *Orixe*-k.**

Belaunaldi horren parte baitzen. *Euskaldunak* euskal poema bilduma nazionala berari eskatu zioten egiteko, eta hori da bere obra garrantzitsuena eta ezagunena.

Paulo Iztuetak zion *Orixe*-k lau erbesteraldi pairatu zituela; erbestera-



LUIS GURRUTXAGA



tze politikoa 1936ko gerragatik eta bere idealengatik; kulturala ere bai, Euskaltzaindiarekin eta euskara batuarekin-eta ez baitzegoen ados; erlijioso ere bai, nonbait apaiz karre-
ra osoa bukatu zuen baina ez zioten meza ematen utzi; eta azkenik, familia barneko erbestea.

**Zu bertsolari zarenez, heldu die-
zaiogun 1935-36 urte inguruan
izan zen bertsolari txapelketari;
Basarri eta Txirrita-ren arteko tal-
ka horri. Zer gertatu zen?**

Aldaketa eman zen garai hartan, or-
dura arte zetorren tradizioetik. Taber-
na girokoa zen ordura arte bertsolari-
riaren mundua, oro har. Garaiko elite
euskaltzaleak, Aitzol, Lizardi eta Ori-
xe-k, besteak beste, eredugarriagoa
izango zen bertso gintza nahi zuten.
Horretarako, *Basarri* bezalako bert-
solariak nahiago zituzten.

Basarri-k irabazi zuen lehendabi-
zikoz antolatuta zuten txapelketa hu-
ra, *Bertsolari Guduak*, eta lehenda-
bizikoz, gaiak jarri zituzten. Horrek
denak indarra emango zion bertso-
laritzari, ikusmin handia sortuko zen
seguru, baina aldi berean, esaten da
bertsolariak *domatzeko* ere erabili
zela.

Nik banuen interesa gai horrekin,

eta lauzpabost herritarrek gorpuz-
ten dituzte *Basarri*, *Txirrita* eta ho-
riek antzerkiaren eszenetako bate-
an. Ordukoa da *Txirrita*-ren bertso
famatuenetakoa, apaizei ironiaz
kantaturikoa.

**Lehen txapelketa hura eta gero,
1960ean, Euskaltzaindiak anto-
latu zituen txapelketak, eta on-
doren, 1980ko urteetan, elkarte-
ak. Zu ere bazara txapelketa ho-
rien protagonista. Esaterako,
1993ko finalean hartu zenuen
parte.**

Bai, gu 1980ko azken urteetan hasi
ginen. Denetarikoa esperientziak
izan ditut nik txapelketetan.

Txapelketa ederra da datorrena-
rentzat, berriarentzat. Lehen ospe-
tsu bihurtu den baten ondoan be-
rriak egiten duenak inpaktu handia-
goa du, entzulearentzat sorpresa
da. Garai ona hura da, gero hasten
dira dudak eta presioak. Batzuk as-
matzen dute presio hori kudeatzen,
ez diezaien kalte gehiegirik egin. Gu
hor ibiltzen ginen... gaizki. Lauzpa-
bost txapelketa nagusi, Gipuzkoako
beste batzuk, gazte mailakoak,... jo-
katu ditut.

**Berria aipatu duzu, baina azken
bertsolari txapelketa nagusiaren**

**finalean berrikuntza handiegirik
ez zen izan. Txapelketa osoari be-
giratuta, ordea, berrikuntzarik
ikusi duzu?**

Ez eta bai. Batzuekin ahaztu egiten
gara, ez dira finalera iristen, baina
Mantxi-k Tolosan egin zuen saioa...
Eta kurioa da, ze bera ez da gazte-
gaztea, gure garaian ere kantatzen
zuen, eta orain tokatu zaio loraldia.

Gaur gehiago ikasten dute bertso-
lariek, bertsoez gainera, psikologia.
Hobeto asmatzen da nola prestatu
psikologikoki. Une honetan nahiko
belaunaldi sendoa dago.

Azken txapelketatik Amets Arza-
llusek eta Sustrai Colinak egin zuten
saio bat, bakarkako batzuk,... gogo-
an ditut zenbait bertsoaldi. Baina
18-20 urte nituenean entzundako
bertso gehiago aterako nituzke
orain memoriatik. Gaztetako ilusio
hori, burua horretara bakarrik eduki-
tze hori lausotzen joaten baita gero.

Gu kantatzen hasi aurreko urtee-
tan bertsoak entzutera joaten ginen
batera eta bestera (autobusa galdu
eta Zizurkilera oinez joan ginen
behin Andoaindik, gauez, bertsoak
entzutera) eta bertso denak ez bai-
na haietako batzuk gogoratuko ni-
tuzke oraintxe bertan.

ANDOAINGO LEIZOTZ AUZOTIK OREXARA

Zenbat urte Orexan bizi zarela? Nolatan?

Hamabost-hamasei urte inguru. Maitemindu egin nintzen, eta etorri behar izan nuen! Emaztea hemengo baserri batekoa da, baserrian bizitzen jartzeko aukera izan genuen.

Andoaingoa izan arren, ez naiz kale-kalekoa; Leizotz auzokoa naiz, inguru berdea du, eta beraz, ondo moldatzen naiz Oresa bezalako lekue-tan.

Zer eskaintzen dizu hemen bizitzeak?

Lasaitasuna, natura ingurunea,... Hori dena apreziatzen baldin baduzu, hor dago gakoa. Noski, baditu bere mugak; egunero lanera jaitsi beharra -nik jarraitzen dut Andoainera joaten-, kotxean kilometro batzuk egin beharra, zerbitzu asko ez daude...

Nolakoa da bertako herri giroa? Jaiak santakrutzetan, kultur hamabostaldia udazkenean,... herritarrak biltzen dira euren artean?

Bai, nahikoa. Kontutan hartu behar da 120 bizilagun inguru garela soilik. Txikitasun horretan, jendeak balioa ematen dio biltzeari, elkarrekin gauzak egiteari; auzolanaren ohitura oraindik ere mantentzen da. Herritarren artean ere nahiko ondo moldatzen gara.

Herri giro hori mantentzeko, zer da beharrezkoa?

Gutxi izate horrek bultzatzen zaitu aldamenekoarekin gauzak egitera. Gainera, etxeak elkarren oso ondoan daude. Herri hau oso bildua da; Nafarroako herri txikien antza handiagoa du. Hala, nahiz eta jende gutxi izan, bata bestearen atarian gabiltza uneoro.



«Bertsozalea ez da bertsorik gabe geratuko guk utzita ere»

Saio asko izaten al dituzu orain?

Momentu honetan utzita nago. Betirako ez dut uste, baina belaunaldi bakoitzak bere garaia izaten du, atzetik berriak datoz bultzaka. Belaunaldi bakoitzak bere estiloa, bere publikoa dauka, eta poliki-poliki ordezkapen bat gertatzen da.

Urte batzuetan zure maila eman duzu, disfrutatu egin duzu, eta maila horri eusteko adina ez baduzu kantatzen eta hasten baldin bazara eszenatokiari beldurra hartzen bada ez dakit merezi duen. Eta ikusita nolako piloa dagoen atzetik, bertsozalea ez dela bertsolariarik gabe gelditu, bada lasai pasatzen zara bigarren planora.

Apirilean egin zizueten omenaldia Andoainen Aitor Mendiluzeri eta zuri...

Bai, eta inflexio puntu bat jartzeko garai polita iruditut zitzaidan. Orain utzita nago, baina ez dut esaten betirako denik.

Eta saioen bat hemen herrian, festetan?

Bai, baina horiek saio informalak dira. Beti izaten da omenaldi bat edo beste. Baina hori ez da izan gure erritmoa. Urtean 120 saio egin izan ditut nik.

Bertsolaria izateko, bertsoa egiteaz aparte, jarrera bat da. Guk behintzat hala hartu dugu. Ez gara hortik bizi izan, baina beste gauza guttien gainetik zegoen. Ni ez nintzen kuadrillako afarietara joaten saioa baldin banuen, eta lehengusu baten ezkontzara ere ez nintzen joan. Egaña, Lizaso, Peña,... Oso serio hartu dugu bertsozalea. Guk egin genuen egin beharreko ekarpena.

Gaztetasuna duzu, sasoi, konpromisorik ez,... Erritmo horretan erraz egiten duzu bertsoan, konfiantza hartzen duzu, nahiz eta egunak izan gauzak ateratzen ez direna. Bizimodu hori urte askoan ez da erraz eramaten.

Zuen belaunaldiak zer ekarpen egin dio bertsolariari?

Azkenean denok katebegi bera osatzen dugu, Fernando Amezketarraren garaitik hasita. Denok gure zatitxo osatu dugu, aurrekoengatik

hartu, jarraitu eta hurrengoari pasa. Aldaketak poliki-poliki gertatzen dira, ia oharkabean. Gu hasi ginen garaian jaietan bertsozalea nola integratzen den eta gaur egun, ez du zerikusirik. Guk harrapatu genuen bertsolaria egun osorako joaten zen garaia.

Gu gara bertso eskolen fruitua izan zen lehen belaunaldia. Eskolarteko txapelketak, adibidez. Bertsolari gazteak fenomeno berri bat ziren. Orain, berriz, elitekoak ere gazteak dira. Bertso eskolen emaitzak sendotzen joan dira, eta onartzen, eta orain ez da harrigarria. Baina garai hartan, zalantzak baziren, ze bertsoa ez zela ikasten ustea bazegoen.

Eskualdean harituz bertsozaleen topagunea egin berri da. Nola ikusten duzu proiektu hau?

Garaiko gauzak. Gure garaian bertsolari gaztea fenomeno berria zen, ez geunden hainbeste, eta asko ibiltzen ginen batera eta bestera. Gaur egun askoz ere bertsolari gazte gehiago dago, eta normala da haiek hastea bidea irekitzen. Guk ez genuen horren beharrik izan, eta hau ez diot harrokeriaz.

Zu eskualdeko 28 herrietan kantatutakoa izango zara?

Bai. Peñak esaten du Gipuzkoako herri guztietan kantatu izan duela, eta niri hiru falta zaizkit: Beizaman, Mutiloan eta Ezkion. Bizkaian eta gutxiago noski.

Tolosaldean eskualde bertsozalea al da?

Ez dakit zer esan... Bertsozalea ere alda korra da, eta zerikusi handia izaten du bertso eskola dinamikoa dagoen edo ez. Ni Tolosan bertso eskolan irakasle aritu izan naiz, Jexux Muruak eta antolatuta. Hark beti esaten zuen Tolosa ez zela batera bertsozalea. Inguruko herri bai, euskaldunagoak baitira. Baina martxa ona zuen Tolosako eskolak.

Bertso saio erreferenteak badira, Altzon eta Zizurkilen, esaterako.

Bai, Altzon saninaziotan beti. Eta Zizurkilen ere bai. Herri txikietan urtean behin behintzat ariko dira bertsolariak noiz edo noiz.

Sei egun festa giroan

Datorren asteartean, uztailak 15, hasiko dira Alegiako jaiak; egitarau zabala antolatu dute hurrengo igandera arte, bai festa batzordeak baita gaztetxeak ere



IMANOL GARCIA LANDA ALEGIA

Egun gutxi falta dira Alegiako festak hasteko: datorren asteartean hasi eta igandera arte iraungo dute aurtengoan. Sei egun, beraz, egitarau zabalaz gozatzeko: batetik, festa batzordeak antolatutakoa, eta bestetik Gaztetxeak sortutako Bibalabirjen festak. Marijo Izagirre, Festetako zinegotzi eta festa batzordeko kideak azaldu duenez, egitarau hori guztia prestatzeak lana suposatzen du: «Aurten Karmen eguna ez da ondo egokitu, aste erdian tokatu da, eta orduan egun asko hartu dituzte festek».

Inauteriak bukatu berrian hasten dira festa batzordeko bilerak egiten, zehaztu du Patxi Renobales kideak: «Ez dugu erantzun handirik izaten jendearen partetik. 6-7 lagun elkartzen gara eta hortik aurrera hamabostean behin egiten ditugu bilerak». Bere aldetik, gaztetxean bilera irrikiak antolatzen dituzte, eta Aste Santuaren ondoren hasi ziren biltzen. «Astero biltzen aritu gara», esan du Imanol Irazustabarrena gaztetxe-

ko kideak. «Beste urte guztietan festa batzordekoak baino egun bat lehenago hasi izan gara, baina aurten zazpi egunetakoa antolatzea gehiegi zen eta egun bat beranduago hasiko dira. Bestalde, bileretan parte hartzea ona izan da».

Bi egitarau antolatzearena orain dela 20 urte ingurukoa da. Renobalesek azaldu duenez, gorabehera batzuk izan ziren udalaren eta gaztetxearen artean: «Udalak atera zuen gaztetxea botatzea aurreikusten zuen proiektu bata, eta gorabehera handiak sortu ziren herrian. Batzuk alde batera eta besteak beste alde batera egin zuten. Bestalde, Langurreko festa bat ere egiten zen bere garaian eta hura ere gai horregatik desegin egin zen. Festei dagokionez, alternatiboak egin behar zirela erabaki zen eta horrelaxe hasi ziren».

Egun bi festen artean harreman oso ona dagoe-la dio Renobalesek: «Saiatzen gara bi egitarauak batera egiten eta oso ondo konpontzen gara». Bi lan taldeak ere elkartu egiten dira ordutegiak eta begiratzeko eta elkarri ez zapaltzeko. Bi egitarauak «osatu» egiten direla gaineratu du Izagirrek:

«Guk zerbait antolatzen dugu, eta besteek jarraian beste bat, eta ondo etortzen da, batez ere astegunetan». Zahagiardo bateratua ere egiten dute festetako egun batean, zubian.

Bibalabirjen jaietako egitaraua ia dena bulebarrean egiten da. «Gaztetxeak txosna jartzen du, eta aurrekontu aldetik gure ideia gastu guztiak ordaintzea izaten da eta zerbait gehiago lortuz gero gaztetxearentzako hobea», dio Irazustabarrenak. Gauetan «nahiko festa polita» izaten dela inguru horretan gaineratu du eta eskualdean ezaguna dela Alegiako bulebarreko festa eremua.


Festa batzordetik dei berezia egin diete tabernariei edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko. «Badakit betiko bezeroentzat traketsa izango dela horrelako edalontziak erabiltzea», esan du Renobalesek, «baina ikusten ari gara sekulako zinkieriak geratzen direla herrian». Tabernariak baiezkoa eman dute eta udalak banatuko dizkie edalontzi berrerabilgarriak. «Ahal den neurrian edalontzi horiek edo kristalezkoak erabiltzeko deia egiten dugu festa batzordetik», gaineratu du.

Txupinazoa, Iñaki Artolaren esku

Egitarauari errepasoa eginez, lehenengo egunean txupinazoa botatzeko ohorea Iñaki Artola pilotariarentzat izango da. «Buruan beste pertsona bat genuen, baina hark ezezkoa esan zigun eta orduan Artolari komentatu genion, eta honek baiezkoa eman du», azaldu du Renobalesek. «Zalantza genuen festak baino lehen debutatuko ote zuen profesioaletan, eta azkenean hala gertatu da. Txupinazoan gaztetxeak ere laguntza emango diote, bere kuadrilla guztia gaztetxe inguruan ibiltzen delako». Txupinazoarekin batera elkarretaratzea egingo da *Euskal presoak eta iheslariak etxera* lelopean.

Lehenengo egun horretan ere kartel lehiaketan parte hartu dutenen erakusketa egingo da.

Hiru sari banatu dituzte: festetako logoarena Enara Amiano altzota-



Zahagiardoa egunero

Bada Alegian indar handia duen tradizioa, eta bi egitarauetan islatzen dena: zahagiardoa. «Ezin da ezer egin zahagiardorik gabe», dio Renobalesek. «Egunero dago». Irazustabarrenak betidanik ezagutu du: «Ez bakarrik festetan, bestela ere egiten da, sanjoanetan esaterako. Zahagiardoa beti da berezia Alegian». Egunero dago zahagiardoaz gozatze-ko aukera, baina bereziena zubian egiten dena da, larunbatean izango dena zehazki, bi egitarauak bat egiten baitute bertan, plaza eta bulebarra elkartzen diren lekuan.

rrarentzat izan da, egitarauaren liburuxkako azaleko saria Arkaitz Gonzalez alegiarrak jaso du eta kontrazalekoa Zihara Oreja alegiarrak. Logoarekin festetako kamisetak egiten dira eta horiek salgai jartzen dira.

Karmen egunean, uztailaren 16an, besteak beste, Korrontzi taldearen emanaldia izango da Amasa-Villabonako Oinkari taldeko dantzariekin eta Alegiako Sutarri taldeko dantzariekin batera. Renobalesek argitu duenez, «orain dela 10 urte inguru etorri zen Korrontzi emanaldi bat egitera eta jendea gustura geratu zen eta aurten errepikatzea pentsatu genuen».

Lehenengo eguna izango da Bibalabirjen jaietakoa eta egun hori «berezia» izaten dela dio Irazustabarrenak: «Futbol txapelketako finala izaten da, gero sagardo probaketa eta trikitaliak gau guztian. Jende asko elkartzen gara. Herrikoak egongo gara batez ere, eta gauean zerbait berezia ere egin nahi genuen, eta azkenean kulero eta kaltzontzillo lasterketa egitea pentsatu da».

Irazustabarrenak aipatu duen futbol txapelketa Santos Torneoaren helduena da. Orain dela 38 urte Santos Olano alegiarra soldaduskan istripua izanda hil egin zen. «Euskaltzale amorratu horietakoa zen eta futbolzalea ere bai, eta bere oroimenez hasi ziren txapelketa antolatzen», azaldu du Renobalesek. «Lehen Franconi eskolan egiten zen, belardi batean, eta gero eskolako patioan izaten zen. Pixkana uzten joan zen, baina gero gaztetxeak heldu zioten antolakuntzari eta egun beraiek antolatzen dute». Horrez gain, Intxurre futbol taldekoak hasi ziren gaztetxoan mailan beste txapelketa bat antolatzen izen berarekin. Hasieran Alegiakoekin bakarrik egiten zen eta

egun Orendain, Abaltzisketa, Amezketeta eta Altzo herrietakoek ere parte hartzen dute. Gaztetxoek txapelketaren finala ostiralean izango da.

Osteguna, hilak 17, haurrentzako eguna izango da batez ere festa batzordearen egitarauan. Besteak beste, arratsaldean play back saioa izango dute. «Lehengor urtean egin genuen lehen aldiz eta arrakasta izan zuen. Aurten ere talde dezente eman dute izena, eta beraiei kantak eta dantzak egiten dituzte», zehaztu du Izagirrek. Bibalabirjen jaietan, bigarren eguna «lasaiagoa» izaten dela esan du Irazustabarrenak: «Aurten mus txapelketa jarri dugu, arratsaldean zerbait jartzeko. Gero poteoa izango dugu Elektro-Txarangarekin, eta poteora jende asko animatzen da».

Ostiralean erretirodunek eta haurrek izango dute protagonismoa festa batzordearen egitarauan. Bertsoek ere bai, gauean puntako bertsolarien saioa izango delako, urtero arrakasta izaten duen ekitaldia, herriko bertso eskolak antolatuta. Gauean ere Kauta eta En Tol Sarmiento taldeen kontzertua izango da. Herri bazkaria izango da ekitaldi nagusia Bibalabirjenetan. Aurretik bertso poteoa egingo dute, iaz berreskuratu zuten ohitura hori, eta bazkariaren ondoren kuadrillen arteko jolasak egingo dira.

Kirolek izango dute bere lekua larunbatean. Arrantza lehiaketa, Euskal Herriko sokatira txapelketako sailkapen proba, eta pilota partidak izango dira. Pilotan, hain justu, Alegiako IV. Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira, eta Iñaki Artolak bere debuta egingo du profesional modura jaioterrian. Eguerdian sagardo dastaketa eta sardina jatea izango da, arrakasta handia izan ohi duen ekitaldia. Egun horretan Bibalabirjen egitarauan, kontzertuek izango dute protagonismoa.

Igandean, aurtengo berritasuna: balkoi eta lorategi ederrenaren lehiaketaren sari banaketa. Izena eman behar da, eta horretarako kultur etxera edo udaletxera joan behar da, eta gaur da azken eguna horretarako. Nabarmentzekoak dira ere egun horretan Sutarri dantza taldearen emanaldia eta Harri-jasotzaileen IX. Txintxarri Saria. Bibalabirjenetan, iluntzean egingo den herriko bertsolarien saioarekin agurtuko dute egitaraua. Festei amaiera emateko, txintxarria erre ordez, pixkana zabaltzen joan nahi duten ekitaldia egingo dute gaueko hamabietan: bakoitzak etxetik eramatea txintxarriak eta hauen soinuekin bukaera ematea. Festa batzordetik herritar guztiei egiten diete gonbidapena festen amaiera ekitaldi horretan ere parte hartzeko.

Bibalabirjen jaien egitaraua

UZTAILAK 16, ASTEAZKENA

17:30. Xantosen omenezko futbol txapelketako finala.

19:00. Sagardo probaketa. Ondoren zahagiardoa. Gauean trikitilariak.

04:00. Kaltzontzilo eta kulero karrera.

UZTAILAK 17, OSTEGUNA

16:00. Mus txapelketa (izen ematea 15:30ean).

19:00. Elektro Txarangarekin poteoa.

Ondoren zahagiardoa. Gauean Ingo al deu? Taldea.



UZTAILAK 18, OSTIRALA

13:00. Bertso poteoa herriko kaleetan.

15:00. Herri bazkaria.

Ondoren, Berastegiko Batukadarekin poteoa (tartean kuadrilla arteko jolasak-pikeak).

Iluntzean, zahagiardoa.

Gauek goizaldera DJ-ak.

UZTAILAK 19, LARUNBATA

Arratsaldean pilota partidak frontoian.

Iluntzean zahagiardoa zubian.

Gauean: Arramazka, Tutan Come On, Herabe.

UZTAILAK 20, IGANDEA

Iluntzean zahagiardoa.

Gauean herriko bertsolariak.



Egitaraua

UZTAILAK 15, ASTEARTEA

18:30. Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupetan.

18:30. Ordiziako erraldoi eta buruhandiekin, herriko txistulari eta trikitilariekin eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira Larraitz auzotik plazaraino.

19:00. Kontzentrazioa plazan *Euskal preso eta iheslariak etxera* lelopean.

19:00. Txupinazoa Iñaki Artolaren eskutik. Jarraian Txintxarriaren jaitsiera, jaien hasiera iragartzeko.

19:30. Loatzo musika eskolako txaranga kalez kale.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00. Joselu Anaiak taldearen emanaldia.

UZTAILAK 16, ASTEAZKENA

09:00. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

12:00. Korrontzi taldearen emanaldia plazan Oinkari eta Sutarriko dantzariekin.

18:00. Atsoak *dantzan* Pikor Teatro taldearen kale antzerkia plazan.

19:00. Herritarren arteko toka txapelketa plazan (helduentzat).

19:30. Unsain Anaiak taldearekin dantzaldia plazan.

21:00. Zahagiardoa plazan.

22:00. Unsain Anaiak taldearekin dantzaldia plazan.

UZTAILAK 17, OSTEGUNA

09:00. Loatzo musika eskolako txaranga alaituriko diana.

09:00. 3x3 saskibalo txapelketa eskolako patioan. Infantil eta alebin mailak, Lagun Aro saskibalo taldearen laguntzarekin.

12:00. Irrien Lagunak taldearen ikuskizuna Larraitz auzoko plazan.

14:30. Umeen herri bazkaria plazan.

15:30. Haurrentzako play-back saioa. Ondoren, haur eta gurasoentzako dantzaldia plazan Joxe Mendizabalen eskutik. Bukaeran txokolatea banatuko da.

UZTAILAK 18, OSTIRALA

09:00. Loatzo musika eskolako trikitilariak alaitutako diana.

09:00. Erretirodunek antolatutako mendi ibilaldia.

11:00. Erretirodunentzat hamaiketako.

10:00-14:00. Haur parkea.

16:30-17:30. Haur parkea.

18:00. Areto futboleko Santos Torneoaren finala.

19:00. Rockalean taldearen emanaldia kaleetan zehar.

21:00. Zahagiardoa Larraitz auzoko plazan.

22:30. Bertsolariak kultur etxean: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Iker Zubeldia eta Iñigo Mantzisor *Mantxi*. Gai-jartzailea: Felix Irazustabarrena.

00:00. Kauta eta En Tol Sarmiento taldeen kontzertuak.

UZTAILAK 19, LARUNBATA

09:00. Herriko txistularien eta trikitilarien diana.

09:00. Arrantza lehiaketa Oria ibaian

6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat.

12:30. Sagardo dastaketa sardina eta txorizoarekin. Sagardotegiak: Eguzkitza, Sarasola, Isastegi, Aburuza, Zalbide eta Zabala.

12:30. Asier Unsain eta Irma Karrerarekin trikitia plazan.

17:30. Euskal Herriko txapelketarako sokatira sailkapena Franconiko zelaietan.

18:00. Pilota partidak: Alegiako IV. Pilota Txapelketako finalak: nagusiak eta kadeteak binaka. Ondoren profesionalak: Saralegi-Isturriaga eta Artola-Zabala.

21:00. Zahagiardoa zubian.

22:30. Nanai taldearen kontzertua.

00:00. DJ Bull.

UZTAILAK 20, IGANDEA

09:30. Kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txistulariekin.

12:15. Balkoi eta lorategi ederrenaren sari banaketa.

12:30. Alegiako Sutarri dantza taldearen emanaldia herriko plazan.

17:00. Umeen jolasak plazan.

18:30. Herri kirolak Larraitz auzoko plazan. Harri-jasotzaileen IX. Txintxarri Saria. Aimar Irigoien eta Joseba Esnola harri-jasotzaileek marka ahaleginak egingo dituzte. Joseba Otaegi eta Eneko Saralegi aizkolarien saioa.

19:30. Alaiki taldearen dantzaldia plazan.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00-02:00. Alaiki taldearekin dantzaldia plazan.

00:00. Txintxarrien hotsarekin agurra egingo diete aurtengo jaiei.



Atzerrian praktikak egiteko aukera eskaintzen dizu Lehiberrik

Gaztea bazara, 30 urte baino gutxiago baldin badituzu, unibertsitate edo goi-mailako lanbide heziketa zikloa egina eta atzerrira praktikak egitera joateko nahia baldin baduzu... Lehiberrik aukera paregabea eskaintzen dizu. Global Training 2014 Eusko Jauriaritzak erakunde ezberdinekin elkarlanean, besteak beste Garapen, Euskal Garapen Agentzien Elkartearekin, sustatutako programa bat da. Eta Tolosaldea Garatzen Garapen-eko kide denez, baita berarekin ere.

Nazioarteko mugikortasun programa honek 30 urte baino gutxiago duten gazteei eta unibertsitate edo goi-mailako lanbide heziketa egina dutenei aukera ematen die atzerriko enpresa eta erakundetan ordaindutako 8 hilabeteko praktikak egiteko, euren ikasketekin zerikusia duten sektoreetan.

Programa hau Eusko Jauriaritzako Garapen ekonomiko eta Lehiakortasun Sailak bultzatutakoa da, eta interesatuek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Diplomaturako, Lizentziaturako edo Goi-mailako Lanbide Heziketako titulua edukitzea.

- 2014ko urtarrilaren 1ean 30 urte beteta ez edukitzea.

- 2014ko urtarrilaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoan urtebete baino gehiagoko administrazio-egoitza izatea.

- 6 hilabete baino gehiagoko praktikak atzerrian egiteko aukera eman dion beste bekarik lortu ez izana.

- Helmugako herrialdeko hizkuntzaren maila edo ingeles-maila ona edukitzea, erreferentzia C1 lizentziaturako eta B2 goi mailako lanbide heziketa titulua dutenentzat. Titulu hauen ziurtagiriak azken 4 urtetakoak izanez gero, ahozko eta idatzizko froga egiterik salbuetsiko da. Ziurtagiri hauek ez dituztenei proba bat –ahozkoa eta idatzia– egingo zaie jakintzak zehazteko.

- Praktikak egingo diren enpresak edo erakundeak eskatutako profilerak egokitzea.

- Diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea da-

karren zigor arloko edo administrazio arloko zehapenik ezarrita ez edukitzea, eta horretarako ezgaitzen duen lege debekuaren eraginpean ez egotea.

GLOBAL TRAINING 2014

Iraupena: 6 hilabete. Epea bukatutakoan, enpresak iraupena luzatzeko aukera izango du.

Diru laguntza: 1.124,77 euro hileror.

Herrialdeak: Italia, Alemania, Kolonbia, Paraguai, Txile, Erresuma Batua, Filipinak, Uruguai, Argentina, Mexiko eta Txekiar Errepublika.

Lehentasuna duten profil komertzialak: software garatzailea, turismoa, ekonomia, ingeniari-tza, biologia, elikagaien teknologia, soziologia, albataria, ingeniari-tza agronomoa, historia, arkeologia eta giza zientziak.

Izen emateko epea: uztailak 28. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko Lehiberriko talde teknikoarekin jarri behar da harremanetan: 943 654 501 telefono zenbakian edo lehiberri@lehiberri.net helbidean.

Festetan sartu aurretik, Santamañako Kros Igoera

Etzi, 10:30ean emango zaio 7 kilometroko ibilbideari hasiera

ENERITZ MAIZ ASTEASU

Igandean Asteasun Santamañako XIV. Kros Igoera izango da. Urtero moduan, Santamañako jaien aurretik antolatu dute kros igoera. Santamañako Elkarteak antolatzen duen lasterketari 10:30ean emango zaio hasiera.

Hamalaugarren urtez antolatu dute lasterketa Asteasuko Udalaren laguntzarekin. Zazpi kilometroko ibilbidea da, eta herrian zehar bi itzuli egin ostean hasiko dira maldan gora lasterka Santamañara iritsi bitartean. Parte hartu nahi duenak egunean bertan izena emateko aukera izango du herriko plazan proba hasi baino ordubete lehenago. Bestela, 943 69 68 96 edo 943 68 34 00 telefono zenbakietara deituz. Izena ematea 4 euro ordaindu beharko da.

Orain arteko denborarik onenak Aitziber Ibarbiak eta Iban Sanchezek dituzte. Lehenak, 33 minutu eta 6 segundotan gelditua du erlojua, eta bigarrenak 25 minutu eta 50 segun-



X. Kros Igoeran parte hartu zuen lasterkari bat. s. GOMEZ

dotan. Parte hartzen dutenen artean bi hauetako errekorren bat hobetzen duenak ere sari berezia izango du eskura.

Gainerakoan, lehen hiru sailkatuentzat izango da diru saria, bai emakumezkoetan eta baita gizonezkoetan ere. Lehenak 120 euro, bigarrenak 90 euro eta hirugarrenak, 60 euro. Beste hainbat sari ere izango dira, eta parte hartzaileen artean zozkatuko dituzte. Antolatzaileek hamaiketako ere eskainiko diete Santamañara gerturatzen direnei.

Kros igoera

UZTAILAK 13, IGANDEA

Ordua. 10:30ean.

Luzera. 7kilometro. Bi itzuli herrian barrena, eta igoera.

Izen ematea. 4 euro. Egunean bertan egin daiteke.

Sariak. Lehenak 120 euro, bigarrenak 90 euro eta hirugarren sailkatuak 60 euro, gizonezko eta emakumezkoetan.

Eutsi goiari!

Astelehenetan
eta ostiraletan

12:30etik 13:30era
107,6 fm

ataria irrati

**TOTOSAIDDEKO
KIROLAK**

OSTIRALA, UZTAILAK II

ALEGIA ANTZERKIA

19:00. Tripitaka Teatro taldearen *El jaiilé azul* txotxongilo emanaldia, plazan. Topic zentroak antolatu duen Txotxongiloen Bideak egitasmoaren barruan.

BANAIZ BAGARA ELKAR- TEAREN IBILALDIAK EUS- KARA PRAKTIKATZEKO

17:30. Kultur etxetik abiatuko dira eta ordubeteko ibilaldia egingo dute.

AMEZKETA XXV. JOXEAN TOLOSA PILOTA TXAPELKETA

21:00. Kadeteetan, Irazustabarrena (Alegia) eta Artola (Amezketan). Gazteetan, Juanokorena (Erreka) eta Eskudero (Leitza). Larrunarri frontoian.

IBARRA ANTZERKIA

10:00. Tripitaka Teatro taldearen *El jaiilé azul* txotxongilo emanaldia, plazan. Topic zentroak antolatu duen Txotxongiloen Bideak egitasmoaren barruan.

IKAZTEGIETA DEIALDIAK

19:00. Urtero moduan, herriko festetan, antzerkia egin nahi dute. Parte hartu nahi duen edonork, udaletxean egingo den bilerara agertu besterik ez du. Bertan hitz egingo da aurten egitekoa denaz.

LEABURU-TXARAMA GIZARTEA

10:30. Herri txikietako udalekuen egun bateratua.

TOLOSA LANDART GAUA

21:00. Afarria eta dokumental emanaldia egingo dute. Sarrera 5 eurokoa izango da. Gau Tematikoa egitasmoaren barruan antolatu dute. BOXA Arte Elkarte kide ezberdinek topaketak egin dituzte Agiti-n Landart-aren inguruan proiektu bat gauzatzeko. Honen sorkuntza eta bilakera aurkeztuko dira, jendeari parte hartzea gonbidatuz. Aldi berean, Andy Goldsworthy-ren *Rivers and Tides* dokumentala proiektatuko da, Landart mugimenduaren errepresentazio gisa. Gaua osatzeko, afaria ere izango da: 2 pintxo berezi + postrea + gelly



shot.

ZIZURKIL PELLO MARI OTAÑO BERTSOPAPER LEHIAKETA- KO SARI BANAKETA

21:00. Bertso afaria egingo da Zimiterioan eta bertan izango da sari banaketa. Afarirako izen ematea Iriarte tabernan egin behar da eta 20 euro balio ditu.

LARUNBATA, UZTAILAK 12

ALEGIA AUZOLANA

09:00. Alegiako Udalak antolatu du auzolana, Langaurre eta inguruak garbitu eta txukuntzeko asmoz. Udaletxearen aurrean elkartuko dira. Lanak bukatutakoan hamaiketako egingo da. Udalak dei egin die herritarrei ekimenean parte hartzeko.



AMEZKETA XXV. JOXEAN TOLOSA PILOTA TXAPELKETA

21:00. Kadeteetan, Altuna (Alegia) eta Zubeldia (Amezketan). Gazteetan, Sevilla (Gasteiz) eta Mendia (Beasain). Larrunarri frontoian.

ASTEASU AUZOLAN EGUNA

09:30. Erreka garbituko dute herritarren artean, 09:30etik 11:30era. Udaletxean elkartuko dira. Lanak amaitzean, parte hartzaile guztiei hamaiketako bat eskainiko zaie.

TOLOSA ANTZERKIA

20:00. Tripitaka Teatro taldearen *El jaiilé azul* txotxongilo emanaldia, Amarotz auzoan. Topic zentroak antolatu duen Txotxongiloen Bideak egitasmoaren barruan.

IGANDEA, UZTAILAK 13

ASTEASU SANTAMAÑAKO FESTAK

10:30. Santamañako XIV. Kros Igoera. Ibilbidea: 7 kilometroko luzera, 2 itzuli herrian zehar eta ondoren Santamañara igoera. Izen ematea: 4 euro. Ordubete lehenago herriko plazan edo telefonoz (943696896-943693400). Marka hobetzen duenak sari berezia izango du.

16:30. Santamañako XIX. Mus Txapelketa.

TOLOSA ANTZERKIA

12:00. Tripitaka Teatro taldearen *El jaiilé azul* txotxongilo emanaldia, Plaza Berrian. Topic zentroak antolatu duen Txotxongiloen Bideak egitasmoaren barruan.

ASTELEHENA, UZTAILAK 14

AMASA-VILLABONA BANAIZ BAGARA ELKARTEAREN IBILALDIAK EUSKARA PRAKTIKATZEKO

19:45. Gaztelekutik abiatuko dira eta ordubeteko ibilaldia egingo dute.

ERAKUSKETAK

Vietnam-eko ur gaineko txotxongiloak. Tolosa, Topic museoa. Urriaren 5a arte.

Kultur lantegietako artelaren erakusketa. Ibarra kultur etxean, uztailaren 11 arte.

Arantxa Recio Parra. Tolosako GKo galerian, uztailaren 31 arte.

Joseba Urretabizkaiaren argazki erakusketa. Amezketako elizan argizaiolei ateratako argazkiak ikusgai jarriko ditu, kultur etxeko aretoan. Fernando Amezketarraren Urtearen barruan antolatutako jarduera. Uztailaren 18a arte.



ZINEMA

Nueva vida en Nueva York

Uztailak 13, igandea (19:30) eta uztailak 14, astelehena (20:30). Tolosako Leidor aretoan.



Egin zaitez Atarikide

uztailaren 20a baino lehen **eta...**



conservasolasagasti.com



OLASAGASTI

kontserba produktuen sorta OPARI!



ARALAR-URBASA elkarteko landaetxe batean,
asteburu baterako egonaldia ZOKKETAN!

943 65 56 95 • atarikide@ataria.info



Kontserba latak



Maria Lopez Altuna
Ikaslea

Kontserba latak sardinak bailiran, guztiz deskonposatu gabe, topatzen omen dituzte hilotzak lurpetik hilkutxa ateratzean; hil ostean urte dezente igaro ondoren. Lehen birramonaren hezurak ziren lekuan, egun, aitonaren hezurrez gain, haragi pixka bat ere ei dago.

Egiptoarrek esfortzu askorekin eta teknika findu batekin lortzen zuten gorpuen mantentzea; hil osteko gorpua prestakuntza luze baten bidez, alajaina. Guri, ordea, ezer gutxi kostatu zaigu. Aparteko tresnarik eta trikimailu berezirik gabe emaitza bera eskuratu dugu. Nola, baina?

Antza, bizitzan zehar hartutako produktu artifizialek eragiten dute hilotzen irautea. Irenstiatiko elikagaien kontserbagarri mordoak gure gorputza kontserbatzen du, hil ostean, bederen.

Halere, horrek ez gaitu bizitzan zehar hobeto mantentzen. Bizirik gaudela ehunak gero eta «ustelago» ditugula esan liteke: minbizi tasak goranzko abiada izugarria darama; osteoporosiak ere tankerako martxa hartu du... Hil ondoren, ordea, lehen baino gehiago mantentzen da gure gorpua. Bikaina gure lorpena!

Hartutako botika, eta gehigarri artifizial guztiek gure gorputza arrotz egin dute harrentzat, hots, lurra ongarrantzeko hain beharrezko direnentzat. Horrela, biziaren legea hautsi dugularik: hauts izan ginen behinola, eta berriro ere hauts bihurtzea nekeza egiten zaigu. Jada ez gara zizareen gustuko.

Hileta topaketak



Amaia Agirre Arrastoa
Bertsolaria


Arrazoi faltarik ez zuen heriotzak batzuk bereizi eta beste batzuk elkartu egiten dituela esan zuen hark. Egia gordina irudi dakizuke, baina hala da. Heriotzak familia-ko batzuk urrundu eta beste batzuk elkartzeko indarra du. Bi gertakizunak ez dira, normalean behintzat, gus-
tuz eta aurrez hala desiratuta suertatzen, ordea.

Beste modurik ez, eta etxeko bati txofer lanak egitea egokitu zait. Familiako biren hiletatara eramatea izan dut zeregin, eta bertan ikusiak eraman nau ondorio honetara. Nik ezagutu ere egiten ez nituen bi ziren joandakoak, baina aspaldian ikusi gabeko asko izan ziren bertaratutakoak. Azken agurra eman duenak jarri du familiar-teko ezezagunak lehenengo aldiz agurtzeko bidea.

Adineko senitartekoak elizaren atarian. Muxuak eta esku emateak pauso bat luzatu orduko. Eta joandakoaren inguruko aipuak baino, bata bestearen atzetik datozenen aurkezpenak nagusi. Bakoitza zenbat aldatu den, bizimodua zer moduz doakion, eta urte luzetan elkarri kontatu gabeko pasadizoak mintzagai.

Pena da, noski, hileta bat izatea urrun bizi direnak gertu sentitzeko arrazoi. Baina halaxe da. Egia askotan heriotza bezain gordina izaten da. Datorren bezala hartu eta eraman beharrekoa. Gertaera lazgarri batek gertaera pozgarri bat ondorio.

Hurrena ea beste leku batean topatzen garen moduko esaldiak hitzetik hortzera. Baita bazkari baterako hitzordua zehazteko irrika ere, baina ia denek pentsatuko zuten berriz ere hiletaren batean elkartuko direla. Eta pena da. Beldur naiz geroz eta maizago ez ote diren izango eliza atariak gure etxeko adinduen topaleku. Nahi baino gehiagotan topo egiteko arriskuak hotzikara eragiten dit, baina bolante aurreak konfesatuta harrapa nazala eliza atarira iritsi aurretik. Amen.



Nando

Emakumea ere gizakia delako



Ainhoa Barandiaran
Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua

Iritsi da ikasturte amaiera eta honekin batera, Udari ateak ireki dizkiogu, ez noski, ordea eguraldi onari, baina hori aparteko kontua da eta ez naiz horretan murgilduko.

Opor giro honetan herritako jaiek izaten dute protagonismo berezia besteak beste. Sanjoanetan hasi eta sanmartinak bitarte bada zer eta non gozatua. Azken aste hauetan, esaterako, sanferminak izan dira hedabideetako hizpide nagusia, ez ordea festetako ospakizunen harira mintzatuz. Orain urtebete Iruñean gertatutakoak alarma gorriak piztu zituen han eta hemen, eta ez naiz ari arrantzaleek zabaldutako ikurrinaz, askori min handiagoa eman baitzien horrek hurrengo egunean neskak erdi biluzik mila esku gainean zituztela ikusteak baino. Noski, iaz aditzera eman ziren eraso sexistei buruz ari naiz.

1996an Negu Gorriak taldeak sortu zuen Sexu Makina abestiak argi dio: *Sexu makina baino gehiago da, emakumea gizakia da. Gauza bakarra buruan badaukazu, panpin puzgarri bat har dezakezu!*

Ia 20 urte beranduago, ordea, batzuek nonbait hori ulertzeko arazoak dituzte eta aurtengo sanferminetan kontrolak indartuko dituzte emakumeen aurkako erasorik egon ez dadin; egunero 750 foruzain ibiliko omen dira kaleetan segurtasuna bermatuz. Oraindik, beraz, badugu zer kontzientziaturik. Eraso sexista horiek, ordea, sanferminetara bakarrik mugatzen ote dira?

Ez sanferminetan eta ez inon, eraso sexistarik ez. Uda honetan, han edo hemen, sanferminetan edo beste edozein festetan, emakume zein gizon, ondo pasa pasatu gabe.

Farmaziak



GAUR

Uztailak 11, ostirala

Ibarra

Egunekoa eta gauekoa:
Lejeune Maset, L.
Euskal Herria kalea, 46.
Telefona: 943 67 32 74.

Uztailak 12, larunbata

Ibarra

Egunekoa eta gauekoa:
Iturrioz Lete, I.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefona: 943 67 09 15.

Uztailak 13, igandea

Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:
Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefona: 943 67 06 48.

Uztailak 14, astelehena

Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:
Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefona: 943 67 60 13.

Zorion agurrak

943 65 56 95
ataria@ataria.info



Jarri
zorion agurra
eta eskaini doan
irratian
kantu bat!

Hilberriak eta urteurrenak



- I. URTEURRENA -

JESUS ERRAZKIN ARTETXE

- Goian bego -

*Zure maitasuna
izan da eta izango da
gure oroitzapena*

Izaskun, Ander eta Iñaki.

Meza IGANDEAN izango da, UZTAILAK 13, Azpeitiko parrokian,
12:30ean. Aldez aurretik mila esker.

2014ko uztailaren 11

ESKELAK

18:30ak arte hartzen ditugu
ataria@ataria.info
Tel.: 943-65 56 95



Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Eguraldia ez da asko aldatuko. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta itsasotik hodeiak garraiatuko ditu, eta goiz partean eta arratsaldeko lehen ordura arte baliteke euri zaparrada txiki bat edo beste botatzea. Arratsalde erditik aurrera, ordea, atertu eta ostarte batzuk zabalduko dira eta giro lasaia izango da. Tenperaturak ez dira 20°-etatik pasako.

Larunbatean

Oso antzeko eguraldia izango da. Euria egiteko arriskua are txikiagoa izango da eta goiz partean eta eguerdira bitarte izango da auke-ra hori. Halere, zaparrada txikiak botako ditu. Arratsaldetik aurrera berriz ere giroa lasaitu egingo da eta ostarteak zabalduko dira. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak zertxobait gehiago igoko dira larunbatean eta 21-22°-etara iritsiko dira altuenak.

Igandean

Atertu egingo du, eta euri arriskua oso txikia izango da. Baliteke goizean zer edo zer botatzea, baina oso gutxi izango da. Orokorrean ateri mantenduko da, eta batez ere arratsalde partean ostarteak zabalduko dira. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, baina indarra galdu egingo du eta tenperaturak zertxobait errekuperatu egingo dira, eta altuenak 23-24°-etara iritsiko dira.

Astelehenean

Eguraldia lasaia izango da. Hodei batzuk ikusiko ditugu zeruan, baina orokorrean giro lasaia izango da, hodeiak eta ostarteekin, eta tenperaturak are gehiago errekuperatuko dira. Altuenak 25-26°-etan ikusiko ditugu. Datorren astearen erdialdera arte giro nahiko polita egingo duela ematen du, eta datorren aste erdirako denezteko beroa datorrela.

Ostirala

11



Larunbata

12



Igandea

13



Astelehena

14



Eguraldia



saridunak



Atarikideentzat **4 afari bikoitz** ditugu

VILLABONAKO 18. GARAGARDO AZOKA

Uztailaren 17tik 20ra

- Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrain)
- Maria Jesus Usandizaga (Villabona)
 - Josune Zubeldia (Tolosa)
 - Lierni Otamendi (Villabona)



Saridunek garagardo azokako leihatilan izango dituzte afarirako txartelak. Afariak, garagardo azokako edozein egunetan egin ahal izango idra.

Asteazkenetan

12:30etik 13:30era
107,6 fm

Tertulia, moda, bidaiak, musika,
aholkuak, aktualitatea...



Nafarroa etorb. 13 beheha • **TOLOSA**
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313

CITROËN C4 CACTUS BERRIA



CITROËN profere TOTAL

KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 EMISIOA (G/KM): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,6/82 - 107

? GAURKO GALDEREI ERANTZUTEN DIEN AUTOA

Zergatik kontsumitzen dute motorrek hainbeste? Zergatik ez dute kotxeen atak babesteko zerbitu asmatzen? Zergatik eseri behar dugu aparte batera bidaiatzen badugu? Hausnartzean, galdera guzti horiek erantzun erraza dutela ikusiko dugu: Citroën C4 Cactus berria.

www.citroen.es
f t y



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA INDUSTRIALDEA Z/G TEL.: 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

R.P.S. Nº 14870/L.G.

Promozio hau indarrean egongo da irailaren 15era arte. Erango da beste estandak bazterrean erabili.



ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

AURRERATU UDA GARAIARI

Ray-Ban • arnette • VOUE • OAKLEY
eta askoz gehiago...

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



686 00 95 28 • beatriz.txirrinta@gmail.com

Zerkausia 5 • 20400 Tolosa

GIPUZKOA